

**2008KO OTSAILAREN 19AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hemeretzia

**HILABETEA:** Otsaila

**URTEA:** Bi mila eta zortzi

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatiak eta laurden.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Jon Kortaberria Lasa

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2008ko urtarrialaren 22ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

**2.- GKE:** garatze bidean dauden herrialdeekin lankidetza proiektuak finantzatzeko oinarriak. 2008. urtea.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.** Garatze bidean dauden herrialdeekin lankidetza proiektuei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea. Helburu honetarako erabiliko den kopurua, 95.771,20 €koa izango da.

**Bigarren.** Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, adieraziz interesatuek iragarkia GAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita 20 eguneko epean eskaerak aurkeztu ditzaketela.”

**3.- BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK.** Esleipenerako hainbat irizpide onartzea.

Ezagutzera eman da, Dulce M<sup>a</sup> Loinaz, 10, 11 eta 12an, CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A.k eraiki behar dituen babes ofizialeko

etxebizitzetako esleipendun bateen esleipena bertan behera utzi beharrean dagoela, jadanik etxebizitzaren jabe delako. Horren ondorioz proposatu da, esleipendun horren hiru logelako etxebizitza, berez hiru logelakoa zegokion eta akats bategatik bi logelakoa tokatu zitzaion esleipendunari ematea. Gelditzen den bi logelako etxebizitza, zerrendan hurrena den ordezkoiari eskainiko zaio.

Bestalde, logela bateko etxebizitza tokatu zaien bi esleipendunek, norbaitek hala nahi izanez gero etxebizitzak elkarren artean trukatzeko egindako eskaria ez da kontutan izan, horrek arazo gehiago sortuko lukeelako, zeren eta beharbada, trukatzeko hori denen artean egiteko aukera eman beharko litzateke.

Horrezaz gain, ondorengo adierazi da, etxebizitza horiek eraikitzea, saihesten duen tentsio handiko posteari buruz:

- Iberdrolak bere elektrizitateko sare berria zabaltzeko lur publikoa erabiliko du.
- Trazatu berriaren kostua, bere garaian 1 Sektoroko Konpentsazio Batzordeak ordaindu zuen.
- Iberdrolak, TENSA enpresari enkargatu dio postea kentzea eta sare berriaren lanak egitea. Martxoaren bigarren astean lan hauei hasiera ematea aurreikusten da eta lanak gutxi gorabehera lau aste iraungo dute.
- Jarraian, CONSTRUCCIONES AMENABAREk etxebizitzaren eraikuntza lanak hasiko ditu.

#### **4.- INFORMAZIOA.** Hainbat informazio.

##### Menpekotasun Legea

Ezagutzera eman da, gizarte-ongizate bulegoen aldamenean, hain zuzen ere, egun kale hezitzaileentzako eta NA izapidetzeko erabiltzen den tokia egokitu egingo dela, menpekotasun legeri buruzko informazioa eman eta behar diren izapideak egiteko. Horretarako administrari bat kontratatu da.

##### Euskara arloari dagozkion berriak

Ezagutzera eman da 2008ko martxoaren 6an, burdinolan, "Igartza Sariaren IX. edizioko irabazleak liburuaren aurkezpena egingo duela.

Aldi berean jakinarazi da, euskararen aholku batzordearen kide berriak izendatu direla. Batzorde honetan entitate desberdinek parte hartzen dute.

---

2008ko hauteskunde orokorretarako propaganda jartzeko lekuen banaketa

---

Talde politikoak:

1.- EAJ-PNV; 2.- PSE-EE (PSOE); 3.- EA 4.- EB

5.- PP; 6.- ARALAR ; 7.- OTROS

**1.- Antzizar kiroldegiaren parean errepidearen beste aldean / Frente al Polideportivo Antzizar al otro lado de la carretera**

1	2	3	4	4	5	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**2.- Igartza Oleta 8 parean / Frente a Igartza Oleta 8**

1	2	3	3	4	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**3.- Dolarea kalean, parkearen parean / Calle Dolarea, frente al parque**

1	2	2	3	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**4.- Barrendain parean / Frente a Barrendain**

1	1	2	3	4	5	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**5.- Barandiaran parkearen goiko partean / Parte alta del parque J.M.Barandiaran**

1	2	3	3	4	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**6.- Urbialden, Erauskin kalearen haseran / Urbialde, comienzo de Erauskin Kalea**

1	2	2	3	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**7.- Zaldizurreta kalean / En Zaldizurreta Kalea.**

1	1	2	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**8.- Urbietta eraikinera bidean dagoen zubían / Puente de acceso a edificio Urbietta.**

1	1	2	3	4	5	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**9.- CAF-eko parkean / Parque antiguas casas de CAF.**

1	2	3	4	4	5	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**10.- CAF-eko parkean / Parque antiguas casas de CAF.**

1	2	3	3	4	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**11.- Arantzazu eta Mariaratz kaleen bidegurutzean / Cruce Arantzazu-Mariaratz**

1	2	2	3	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**12.- Ezkiaga etorbidea 3ren parean / Frente a Avenida Ezkiaga, 3**

1	1	2	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**13.- Oria Pasealekua 20 parean / Frente al Paseo del Oria 20**

1	1	2	3	4	5	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

**14.-Sempere merkatal cunearen sarreran / Entrada Centro Comercial Sempere**

1	2	3	4	4	5	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---	---

## Arana kaleko Birgaitze Plan Berezia

Arana kaleko Birgaitze Plan Bereziak behin betiko onespena jaso duenez, 2008ko urtarrilaren 31n Osoko Bilkurak emandako erabakiaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte gaietako Sailari dagokio birgaitze integratuko eremua aitortzea. Aitorpen horrek suposatzen duena kudeatzeko, pertsona fisiko edo juridiko batekin kontratazio administratibo bat burutzeko asmoa dago, horretarako egokituko den bulego eramateko.

Arana kaleko etxebizitzaren obrak egiten diren bitartean, hor bizi diren pertsonak, Mariarats kalean eraiki behar diren babes ofizialeko etxebizitzetan, alokairu moduan birralojatuko dira.

## Zinegotzien ordainsariak

Gogorarazi da 2007ko urriaren 18an, organo honek hartutako erabakia, hau da: 2007. ekitaldiari dagozkion asistentziak era pertsonal eta banakakoan ordainduak ez izatea baizik eta aipatutako udal taldeen izenean eta beraien alde abonatuak izatea, hauen finantzaketara zuzendutako kopuruak ordaintzeko gauzatutako kontu korrontean.

Erabaki hori 2007. ekitaldiari zegozkion asistentziarena zenez, gaiari berriz heldu zaio.

Fernando Boada jaunak adierazi du, kargu publikoaren estatutua aplikatzeak egun dagoenaren aldaketa handia suposatuko duela eta aurrekontuetan ere hori aurreikusi egin beharko dela. Beraiek proposatu dute, estatutu hori 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzea eta bitartean orain bezala jarraitzea.

Alkateak esan du Dekretua egingo duela kontuhartzaitzari agindua emateko, legeak adierazten duen eran ordaintzeko esaten ez duten zinegotziei, 2007ko urriaren 18an hartutako erabakiaren arabera ordaintzeko.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarrak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.